

7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideei dagokionez, lau baliabide mota ezberdin erabiliko genituzke, baliabide fisikoaren aldetik lokal bat behar genuke, makina eta lan material guztia biltegitzeko eta lana han egiteko. Lokalaren bulegoan, ordenagailuak edukiko genituzke eta bezeroarentzako arreta-zerbitzua hortik baliatuko zen.

Baliabide intelektualen eta giza baliabideei dagokionez, eta gure taldeari dagokionez hauek izango ziren gure funtzioak:

Jairo gure informatika eta programatzaileen burua izango zen, azkenean berari gehien gustatzen zaiona egitea da, gainera oso ona da eta bere trebetasunak aprobetxatuko ditugu.

Judith bezeroetaz arduratuko zen, bezeroentzako arreta-zerbitzuan parte hartzen, oso harreman onak izaten ditu beste pertsonekin, nahiz eta ez ezagutu, horregaitik uste dugu lan hau hoberen egin dezaken pertsona dela.

Ander marketing eta publizitateaz arduratuko zen eta gure produktua zabalduko zuen, zormen ikaragarria duelako esaldi erakargarrietan eta uste dugu hori klabea dela marketinean haritzeko.

Eta losu gure administratzailea izango zen eta kontuak eguneratuta izango zituen. Betidanik oso ona izan da matematiketan eta zenbakiekin orokorrean, gainera, lan hau egiteko existitzen diren aplikazio guztiak perfektu ezagutzen ditu.

Hortaz aparte, beste langile batzuk izango genituzke, adibidez Judith bi laguntzaile izango zituen, azkenean oso zaila delako pertsona bakar batek bezero guztiez arduratu. Jairoren taldea hiru informatikoz osatuko zen, Judithen kasuan bezala, oso zaila delako langile bakar batek ordenagailuarekin zerikusia duen gauza guztiaz arduratzea. Anderrek bi laguntzaile izango zituen eta losuk beste bat.

Langileek praktikazko kontratua izango zuten baina lana ondo eginez gero kontratu finkoa bihurtuko zen. Hau egingo genuke gure enpresa promesa gazteetan sinesten duelako eta uste dugulako pertsona horiek gauza berri asko aportatu dezaketela.